




IXIKI


LUTELESTI

I⁹⁰ MAĻA

ITUŅIOTZ PIRMIN

1932





NIHIL OBSTAT

Victoriæ, 21 Januarii 1932

CENSOR,

Emmanuel de Lecuona.

JABEDUNA DA

IMPRIMATUR

Victoriæ, 22 Januarii 1932

VICARIUS GENERALIS,

Dr. Justus de Echeguren.

n-14573
R-7574

ITUÑIOTZ PIRMIN APAIZ IRAKASLEA

EUSKO - IKASKUNTZA'KO

LENEN - IRAKASTE BATZORDE'KOA



LUTELESTIA

IRU MAĻATAN

EUSKERAZKO LENENGO MAĻA

GIPUZKERAZ

IRAKASLEARI



IPUZKOA'KO lutelesti edo jeograpi txiki bat egiteko asmoz asi nintzan; (basefiko nere ikasle maiteak eskatzen zidaten bada, itzez bezin beahez), baño Eusko - Ikaskuntza'ko Lenen - Irakaste Batzorde'koak, ikusi zuten nere lana amaitu baño len, eta lutelesti oren mugak Euskaleñi guztira zabaltzeko eskatu zidaten, onela eusko ume guztiak zer ikasia izan dezaten etxeko betietan.

Lutelesti au egitean bada, aurrez-aurre izan ditut, eusko umeak. Abentzat idazti egoki, atsegin eta garbia egiten sayatu naiz. Ume txikiei okel zati aundirik etzaiela eman bear, koskortu bitartean, eta lenengo malako lutelestitxo au argitaratzen det aientzat. Ondoren etoriko dira koskoragoentzant, bigarren eta irugarren malako jeografiak.

Jaungoikoa'ri ta ongilliei eskerak!

Irakasle bakoitzak, lutelestia erakusteko gaiak bilatuko ditu, bigarren eta irugarrenengo maletan batezere, eta gaiak nola eratu bear dituan bakoitzak erabakiko du.

Azkenik, eskari bat egiten dizutet: idazti ontan topatzen dituzuten utsegitak adirazi egizkidatzute, eskefon jabe egingo zerate - ta.

Ernani, Sortze Garbiaren egunean, 1931'ko urtean.

EGILEAK.

LENENGO ZATIA

Guztikiko Ezagutzak

SAÑERA

LUTELESTI EDO JEOGRAPIA

Lutelesti edo jeografia Lufa'ren azalpena da.

Lutelestiak iru zati besarkatzen ditu; Berezko lutelestia, Gizakiekiko lutelestia, ta aberaskieki-ko lutelestia.

Berezko lutelestiak, Lufe'ko mendi, ibai, itsaso, egurasti ta abar azaltzen ditu.

Gizakiekiko lutelestiak, Ludi'ko bizilagunen antolaketa erakusten digu.

Aberaskiekiko lutelestiak, Ludi'ko ontasunak eta beren uztiatzez, nekazaritzaz, langintzaz eta salerostitzaz begiratzen du.

Irurak ikasiko ditugu etxe, ikastetxe, basefitik (irakasleak nai duanetik) asi-ta. Ni basefitik asten naiz, idazti au basefitar artean sortu detalako.

I l k a s g a i a

BASETXEA



Ikusgaien Begiztaldia.—Zenbat belar-meta daude? — Ataria zein da? — Ganbara? — Mandioa? — Gurdia?
II.—Eliza nun dago? — Bidetxigorak nun dira — Zugaitzik ikusten al dezu?

IKASGAIA

—Mendi ta ibafetan zear sakabanaturik dauden etxeak dira basetxeak edo basefiak.

—Basetxe inguruko luřak landuz bizi dira, basefitafak.

—Basetxe edo basefiak atari zabala, sukaldea, logelak, ikulua, ganbara, mandioa ta etxe-ordea izaten ditu.

—Basetxeak euki oi ditu bere inguruan: aran, gerezi, piko udare ta muxerka ondoak, baratza koskor bat, soroak bai ordekan bai aldapan, belardiak, sagastiak; eta ufunago: olategia, itufitxoa, erka, otadia ta basoa.

—Luřa goritu ta lantzen duten basefitafei, nekazariak deritzaie.

—Antziñako bizi lagunak ibai ertzetan eta basoan oyan itzaletan, zakabanatuak bizi ziran.



—Etxeak lenbizi lufezko, bustiñezko ta zurezkoak ziran; gero ari ta ari landuzkoak.

—Basetxeko nagusiari etxeko-jauna deitzen zaio ta bere emazteari etxeko-andrea.

—Nekazarien lan eta arazoak alpef gofian dira, Jaungoikoa'k eguzki ta euriaz lufak gozatu ta indaŕtzen ez baditu.

IRAKURGAIA

Gogordopeko zela
laitxo baten, garo-
meta andi batzuen
urfean, soro eder
narotuz inguraturik,
bene benetako pa-
txadan zegoan Zaba-
leta baseŕia. Bere
alboetan, amari go-
netatik eutsika dau-
den aurtxoak bezela



OTSAGABI

etxe nagusiari jotuta
bestetxo bi agiri zi-
ran bata ogi edo ar-
toa eŕetzeko labea,
bestea abere jana-
riak gordetzeko le-
kua; ta auekandik ez
ufuti zerbait mendi
aldera ta beregain
neguan ardiak iduki-
tzeko eloŕa.

(«Garoa»-tik artua.)

GALDERAK

*¿Zer dira ba baseŕiak edo base-
txeak — ¿Zenbat zati izaten ditu base-
riak? — Nola deitzen zaie luŕa lantzen
dutenai? — Euskaleŕia'n noizkoa da ba-
setxea? — Nun bizi zira antziñako bizi-
lagunak? — Nolakoak ziran lenbiziko
etxeak? — Etxeko-andrea nori deitzen
zaio?*



ENDARLAZA

II Ikasgaia

ODEIAK



Ikusgaien Begiztaldia.—¿Zein dira lufun saiak? — Eguna ala gaua da? — Eliz txurua nun da?
II.—Odeiak sakabanatu dira.—Gaua da ta odeiak ditziko daude.—¿Zerk argi egiten ote die?

IKASGAIA

—Basetxea ta Luf guzia eguratsaz inguratua dago. Eguratsa beafa da bizi izateko.

—Aizea eguratsaren igi-
dura da.

Aizeak ekafi ta erama-
ten ditu eguratsan sortzen
diran estalki zuri-beltz ba-
tzuek. Estalki zuri-beltz oiek,
odeiak dira.

—Odeiak eguratsan uru-
titxo zinzilik dauden, ur lu-
fun zaiak dira.



UR JAUSTEA

—Lañoa lufgaiñ eta itsasgaiñean dagon ur lufuna da.



ALASKA

—Odeiak eta lañoak ur tantoz eraltzen dira, odeiak ur tanto mardulez; eta ur tanto txez, lañoak.

—Txistil, osin, zingira, efeka, aintzira, itsaso ta abafetik sortzen dira lañoak eta odeiak.

—Eguzkiak bere beroaz lufeko urak lufun biurtzen ditu, eta lufun au goi goietan pilatzen da, ta odeiak eraltzen ditu.

—Odeiak era askotan arkitzen dira eguratsan. Nola arkitzen diran ala deitzen zaie: txanbolin-odoi, (kumulus), bufuntzi-odoi (estratus) ipar-odol (zifus) ekaitzpuru eta abar.

—Txanbolin-odeia (kumulus), odei ilun, borobildu ta pīlaratua da.

—Bufuntzi-odeia (stratus), odei malakatua da (gainka jaritako maletan agertzen dana.)

—Ipar-odei (zifus), odei aritsu ta zuria da.

—Ekaizpuru (nimbus), odei beltz, ilun, eukikofak dira.

IRAKURGAIA

Martintxo'ren amak, surtan lapiko urez betea ipiñi du babak egosteko. Ura berotu danean, lufuna lapikotik goruntz irteten asi da. Martintxo'k marmita baten estalki otz xamafa ipintzen dio lapikoari eta bereala estalki ura busti-bustia ta tanto mardulak ixuriaz ikusten du. Orixe gertatzen da lufunak edo lañoak oztutzen diranean ere.

GALDERAK

—Aizeak zer dira? — Odeiak zer dira? — Zer dira lañoak? — Nundik sortzen dira odei ta lañoak? — Nola eraltzen dira odeiak — Odeiak oztutzen diranean zer gertatzen da? — Zer da txanbolin-odoi? — Zer bufuntzi-odoi? — Zer ipar-odoi?

III Ikasgaia

EURIA TA IBAIAK



Ikusgaien Begiztaldia.—Artzaia ¿zertan ari da? — ¿Zenbat ardi ditu aldamenean? — Eguraldi ona al dauka? — Oñetakorik bai al du? — Nolakoak?

II.—¿Zenbat ur-zulo ikusten dituzu? — Arkaitzetik urik erortzen al da? — Iturburua ikusten al dezu? — Ibaia iturburutik sortzen al da?

III.—Iturburutik sortu dan efeka ikusten al dezu? — Ura lasai ala estu dijua efekan? — Ta ibafean?

IKASGAIA

—Euria, odeietik tantoka jausten dan ura da. Ur tanto txea jausten danen lanbroa esaten zaio.

—Euri urak, batzuek lurpera dijoazte ta besteak lur gain, lubaki, lasa ta efekatxoeratik ibaira eta itsasora.

—Lurpera dijoazten urak batzuek lurak txukatzen ditu ta besteak lurpeko lubaki, ta efekatxoetatik iturburuetara edo iturietara dijoazte.

—Itufia lurpetik lurgañera irtetzen dan ur aria da.

—Lasa etengabeko ur ari medafa eta mea da.

—Ibaia etengabeko ur ari zabal eta sakona da.



URANTZU INGURUAN

—Ibaiak iru zati ditu:—1^{go}—burua, sorlekua, edo iturburua.—2^{gn}—amaia, izaro eta 3^{gn} bien arteko bidea edo uberka.

—Ibaia sartzen da, edo amaitzen da beste ibai baten, edo aintziran edo itsasoan.

—Ibai irazkofa beste ibaian sartzen dana da.

—Itsasoan sartzen dan ibaiari itsas-ibaia deritzaio.

—Aintziran iltzen dan ibaiari, lufasorako ibaia deitzen zaio.

—Ubidea gizonaren ekitez egindako ibai bidea da.

—Urzintzuña ibai, eřeka, lasa ta lubakiko ur guziak alde batera biltzen ditun lufaldea da.


—Ibaña ibaiaren ezker-eskubiko luf batza.

—Lufeko ur geienak gozoak dira, itsasokoak gaziak.



AGOIZ'KO INGURUAN

IRAKURGAIA



BIDASOA IBAIA BEOBI'N

Gure eřiko lufak sařitan euriak gozatzen ditu, Jaungoikoa'ri eskeřak. Gure lufak befiz meak eta aldapatsuak dira. Ofelako lufak ongaritzeko ura maiz eta ugari bear izaten dute. Mendiak zugaitzez jantzirik egon diran bitartean ez dute

izan gure lufak egaři aundirik, bařa gure basoak soildu diranetik euri gutxiago egiten du. Bete zugaitzez mendiak. Bat bota bear bada, bere lekuan bi jaři.

GALDERAK


Euria zer da? — Euri urak nora dijoazte? — Iturburua edo ituřia ęzer da? — Eřeka zer da? — Ibaia zer da? — Zenbat zati ditu ibaiak? — Ibai irazkofa zer da? — Itsasoan sartzen dan ibaiari nola deritzaio? — Ubidea zer da? — Urzintzuña zer da? — Ibaña zer da?

IV Ikasgaia

MENDIAK ETA ZELAIAK



URESTILA



Ikusgaleen Begiztaldia.—Mendirik goratuena zein da?—Basetxerik ikusten al da?—Zelaian ala maldan dago bidetxigofa?—Mendiaren bizkara zein da?—Ta oña?—Ta egala?

IKASGAIA

—Lufaren zimur aundiak dira mendiak. Mendiaren zatiak dira, oña, geria ta bizkara.

—Mendikate edo Mendilefoa etengabeko mendi saia da. Mendilefoa motza ta txikia danean mendaitza da. Atea edo lepoa mendi baten saietsetik, beste alderdira dijoan bidea da.

—Bere alde guztietan, berdiña dan luf zatia, zelaia da.

—Mendiaren bizkafeko zelaidia maioa da.

—Mendatea, bi mendi arteko luf zati medara da.

—Zugaitzez ornitutako luf zatia basoa da.



LEKUNBERI'KO MALOA

—Ibaiaren ezker eskubitako lur alderdiari, ibara deritzaio.

—Sutokaria, krater deitzen zaion zulotik su, ke ta autsa botatzen ditun mendia da.

IRAKURGAIA

Aizkoñiko bizkafetik ikusten dana ez da beste inundik gure Euskalefi'an ikusten.


Mendiak, mendi anaiak lenbizi, Ernio ta Izafaitz, Aralar ta Gorbea, Arno ta Atxu, Oiz ta Anboto, Mendoegi, Etxalar, Oiluz ta beste asko egundano ikusi ez diran gisan, luñ eta erien gañetik beren buruak jasoaz alkafi begira, uri aundi bateko Eleiz-toñeak alkafi begiratzen

dioten antzera; baso andi zugatzez beteak gero: Ustuf, Otsabio, San Adrian, Elgea, Zaraia Solube, Bizkargi, Andia, Belate ta nik eztakit zenbat geiago, denak ostro berde beñiak zeruruntz jasoaz, Jaungoikoari eskeintzen zitzaizkion lorontzi eder batzuk ziruditela.

(«Garoa»-tik artua).



MINTXATE'KO MENDATEA



ANBOTO'KO ARKAITZAK

GALDERAK

Mendiak zer dira? — Maloa zer da? — Zer da atea edo lepoa? — Mendaitza zer da? — Zelaia, zer da? — Zer da maloa? — Mendatea zer da? — Basoa? — Ibaña? — Sutokaria?

V Ikasgaia

ITSASOA TA ITSASALDEA



Ikusgaien Begiztaldia.—Lurra itsasoan sartzen ikusten al dezu? — Itsasoa luraldean sartzen al da? — Ugarteak urez inguratua al dago? — Ibaia itsasoan sartzen ikusten al dezu? — Ur-ontziak izaratean sartzen al dira?

IKASGAIA

—Itsasoa ur gazien pila aundia da. Itsasoa guztiz zabala ta aundia danean itsasaundi edo Ozeano deitzen zaio.

—Leku batzuetan 100 bat metro bea-aldea dituzte, beste batzuetan baita 9.000 metro ere.

—Itsasaldea itsasoa ta legoia alkartzen diran tokia da.



GETARI

—Izadara legoñean sartzen dan itsas zatia da. Itsas-ataka bi lufalde tarteko itsas zati estua da.

—Ugartea, alde guztietatik urez inguratua dagon luf zatia da.

—Itsasate edo izarate urontziak izpazteñan egon aldia egiten duten itsas zati barea da.

—Ostugartea alde batetik ez beste guztitik urez inguratua dagon luf zatia da.

IRAKURGAIA

Itsasoko ur guztiak beñere geldi ez daude. Aldi batean legoñera igotzen dira, beste al-
dian bera jeisten dira. Bi aldi aberi izgora ta izbera esaten diegu. Izberan ondartz zabalak ikusten
ditugu itsasaldean, izgoran beñiz urak artzen ditu ondartz aiek. Urontziak izarate ate batzuetan sartu
eziñik ibiltzen dira, izberan ur gutxi dutelako, izgoran beñiz eñez sartu oi dira.



IZARO - UGARTEA


GALDERAK

*Itsasoa zer da? — Izadara zer? — Eta itsasataka? — Ugartea? — Lufadara zer da? —
Ostugartea zer? — Izaratea zer da?*

IDAZ JARDUNKIZUNA

*Itsasoa ur . . . pila aundia da. Izadara . . . sartzen dan itsas zatia da. Lufadara . . . sartzen
dan luf zatia da. Izadar bat mareztu. Ugartea alde guztietatik . . . inguratua dago. Izgoran
urak . . . igotzen dira. Ondartz zabalak . . . ikusten ditugu.*

VI Ikasgaia



Ikusgaien Begizaldia.

—Eguzkiaren inguruko izarbelak zenbatu. Izenak irakurri. —Zein dago eguzkitik urutiena? —Aldeena zein? —Ilargia luraren inguruan dabilen izar mutila da. —Nola ikusten degu? —Begira.

II.—Ilargiak lura bereganatzen duanean lur gañeko urak alde batean ari egiten dira ta beste aldean jexi. Azitzen diran aldean izgora da, jexitzen diran aldean izbera.

IKASGAIA

—Oskarbian agiri diran argi pizkofak, izarfak dira. Argirik ez dun izarfari izarbel deitzen zaio. Lura izarbela da.

—Eguzkia izarfa da; berak argi egiten digu eta berritzen gaitu.

—Eguzkia ez da izarfik aundiena, beste asko dira aundiagoak.

—Lura baño miloi ta erdiz aundiago da eguzkia.

—Eguzkiaren inguruan zortzi izarbel dabilta biraka.



—Ilargia izarbela da,
argirik ez du berez, eguz-
kitik artzen duna baizik.

—Ilargia Lufa'ren in-
guruan biraka dabil, ofegatik da Lufa'ren izař-mutila.



IRAKURGAIA

Jaungoikoa'ren alguzitazuna zeru
goian bezin argi, iñun ez degu ezagutzen.
Nork zenbatu izař guztiak? Nork neurtu?
Nork ezagutu oyen bide guztiak? Ainbes-
te dira eta ez dira nastutzen; ain aundiak
eta alkaf ez dute jotzen. Oiek egin eta
zuzentzen ditun Jaun alguziduna izan
bear du Jaungoiko egizkoa.



ZARAUZ'KO ONDARTZA
GALDERAK

Izařak zer dira? — Eguzkia izařa
al da? — Eguzkia izařik aundiena al da?
— Ludia baño txikiago ote da eguztia?
— Eguzkiaren inguruan izařik bai ote
da? — Ilargia izarbela al da? — Ilargia
geldi ote dago?



BERASTEGI NEGUAN




EGUZKI ALDEAN

IDAZ JARDUNKIZUNA

Eguzkia...da. Eguzkia ludia ba-
ño...da. Eguzkiaren inguruan...izař
belak dabiltza. Lufa'ren inguruan...
dabil. Ilargiak argirik ez du baña...
artzen du. Ilargiaren gora-berak...di-
ra. Beroa...sortzen da.

VII Ikasgaia

LUFA TA BERE IBILKETAK



Ikusgaien Begiztaldia.—Lufa bere ardatzean eta eguzkiaren inguruan biraka dabil.—Lau alditan ikusten dezú.—Eguzkiak zein alderdi jotzen du? —Eguzkiak jotzen ez dun aldean gaba da.—Urteko aldiak irakuri.—Lufa ardatzaren biran.—Zati beltzean gaba da.

II.—Eguzkia nun da? —Eskubitara a la ezkeretara dauka mutilak?

IKASGAIA

—Lufa gu bizi geran izafbela da. Lufa ez da zelaia, baizik borobi-
la, laranja eta sagar baten antzekoa.
Ofegatik, itsasoaren osertzean itsason-
tziaren beko aldea ezkututzen da len-
bizi eta gero goiko aldea, ez dana
batean. Elkano, itsasgizon bulartsuak,
lenengoz orain 400 urte bira eman
zion Lufa'ri.



—Txildorëtik beste alderaño laranjari ofatza sartzen badiogu eta ofatz onen biran ibiltzen badegu ardatzaren biran dabil. Onelako ofatz edo ardatzik gabe biraka dabil Lu-
fa, baña ardatz baten biran bezela.


—Irudizko ardatz onen buruak dira ardatz-buruak (poloak). Ipañaldeko ar-
datz-burua eta egoaldeko ardatz-burua.

—Luñaren boronbila bi erdi berdi-
ñetan zatitzen badegu laranja ofen itxu-
ran, zati bakoitza boronbil erdi bat da;
goikoa, ipañaldeko boronbil-erdia eta be-
koa, egoaldeko boronbil-erdia.

—Bi boronbil erdiak alkar jotzen
dutela jartzen baditugu, ikusgaiaren eran, erdiko leño obo ori da Ekuadorea; leño obo aundiena.

—Ardatz-buru batetik bestera dihoazten leño oboak, meridioak dira.

—Luña bi eratan dabil; bere ardatzaren biran eta eguzkiaren inguruan.



—Luña'k ardatz bira 24 ordutan egiten du.

—Luña'k eguzkiaren inguruko bira urte betean
egiten du.

—Urteak lau aldi ditu: Udabefia, Udara, Udazkena
ta Negua.

—Ortzeak Luña jotzen duala dirudin leñoa da osertza

—Luña'k lau alde ditu: Soñtaldea, Sañtaldea, Egoaldea ta Ipañaldea.

IRAKURGAIA

Urtearen aldiak lau dira. Udabefian lorez apaintzen dira gure belafdiak, zugaitzetan ostua
zabaltzen da, txoriak txiu-txiu beren kabietan abesten dute, menditik bera efekatxo garbiak mur-
mur leunetan jausten dira. Udabefia, bizitza beña da, luñeko bizikari guztien piztuera.

GALDERAK

*Luña zer da? — Luña zelai-zelaia al da? — Luña geldi ote dago? — Lu-
ña'k bere ardatzean bira zenbat denboran egiten du? — Eta eguzkiaren ingu-
ruan? — Urteak zenbat aldi ditu? — Osertza zer da? — Zenbat alde ditu ludiak?*



VIII Ikasgaia

LUŦ'EKO ITSASO TA LUŦALDEAK



Ikusgaien Begiztaldia.—LuŦa bere boronbiŦan —¿Zein dira luŦaldeak? —¿Zein itsasoa? — Legor-zatia ala itsas-zatia da aundiena?

II.—LuŦa boronbiŦa da, baŦo bere zatiak ikasteko zapi baten antzera zabalduta ikusten dezu. — IrakurŦi luŦaldeen eta itsasoen izenak.—Gure erŦia gurutz goŦian dago:—Europa'ren ezkeretara.

IKASGAIA

—LuŦ'ko luŦ gaŦaren iru laurdenak urez estalita daude.

—LuŦ'ko Itsasandi edo Ozeanoak bost dira: Itsasandi Barea, Atalan Itsasandia, Indi'ko, IpaŦaldeko Itsasandi Izoztua, ta Egoaldeko Itsasandi Izoztua.



DONOSTI'KO ONDARTZA

—Lur'eko luralde aundiak dira: Europa, Asia, Aprika, Amerika ta Ozeani.

—Euskalefia
Ipañaldeko boronbil-
erdian eta Europa'ko
sartalde ta egoalde-
an arkitzen da.

IRAKURGAIA



Lur'a boronbi-
la dala esan degu,
baña bere zatiak

obeto adirazteko, zapi baten itxuran zabaldu ditzagun. ¿Zer antzirudi artuko dute? — Or ikusten dezu antzirudia margotuta. — Itsasoa ikusten dezu zein zabala dan.

Irureun miloi ta erdi kilometro kuadratuak ditu eta luraldeak miloi ta erdi. Europa'n etzekiten Amerika zanik ere ta Kolon itsas-gizon argiak arkitu zuan. Euskaldunak laguntu zioten lan ontan.



LURA



LEKEITIO

GALDERAK

Lur'eko lur
azala nola ar-
kitzen da? —
Lurganekeo
itsas aundiak
zenbat dira? —
Lur'eko lur-
alde aundiak ze-
in dira? — Eus-
kalefia nun
arkitzen da?

P

IX Ikasgaia

EGUTARO TA ENDAK



Ikusgaien Begizaldia. — Lufa boronbil onen antzekoa da. — Lufa'k nun du Ipafaldea? — Egoaldea nun? — Erdiko lefoan zer dago?

II. — Zuriaren ilea beltzarenaren antzekoa al da? — Ezpain aundiak nork ditu? — Ta begi txikiak nork?



IKASGAIA

- Otz, bero, euri ta aizeak egutaroa sortzen dute.
- Egutaroa iru motakoa da: beroa, epela eta otza.
- Egutaro beroko efiak dira Ekuadore ta inguruko efiak;

eguzkiak zuzen jotzen ditu lufak kiskaltzeraño. Ango gizonak lafu beltza dute. Alde oni bero-alde deritzaio.

— Ekuadoretik goruntz eta beruntz eguzkiak zeafetara jotzen du eta leku oek alde epelak dira.

— Euri asko egiten du epel-aldean. Gu goiko epel-aldean bizi gera.

Oraindik gorago, ardatz-buru aldean giroa oso otza da. Lufak eta itsasoak, geienean izoztuak arkitzen dira, basorik ez dago eta lufak ez du ezer ematen. Au da otz-aldea.

— Ipafaldeko aizea, Eguzki aize, Zefaize edo Ipafbeltz. Egoaldekoa, Ipafgoñi, Ipar eta Eguzkiaize tartekoak. Abek dira aize nagusienak.

— Gizon guztiak soin berdintsua dute, baña begi, ezpain, ile ta lafuaren margoa, ez ain berdiñak. Endak lafu zuri, ori, gorizka eta beltzekoak dira. Lafu zuridunak ugarienak eta baita auferatuenak ere.



**ERONKARI KO
SEGALARIA**

—Erljioa bi eratakoa da: Jaungoiko batengan sinisten dutenena eta Jaungoiko askogan sinisten dutenena. Kistafak Jaungoiko batengan sinisten degu, Kisto Jaungoiko egizkoaren semeak erakutsi zigun bezela.

IRAKURGAIA

Lufe'ko alde izoztuetan giz-emakume gutxi bizi dira. Lufak ezin ezer eman dute, urte guztian elufez ta izotzez estalita daudelako. Lufalde ontako bizilagunak eguzkirik ez dute ikusten sei ilabetean. Bero-aldeko lufak legofak dira, baña indartsuak. Emen biltzen dira kape, liñabera, azukare, eta kebelaf edo tabakoa. Alde bakoitzeko abere ta pixtiak begiratu ikusgaietan.

IPAR ARDATZ BURU




ARABA'KO ARTZAIA

GALDERAK

EGO ARDATZ BURU

Zerk egiten du egutaroa? — Zenbat eratakoa da? — Zeintzuk dira eri beroenak eta zeintzuk otzenak? — Zein aldetan bizi gera gu? — Zenbat motako aizeak dira? — Zenbat motako aizeak dira? — Zenbat motako endak? — Eta erlijioak? — Zein da gure erlijioa?



AITZGORRIKO MALOA

BIGAĒEN ZATIA

E U S K A L E Ē I A

Euskalefi guztiko befien aufetik umeak bakoitzak
bere efkikoak ikasi bear ditu. Gipuzkoaŋentzat
Gipuzkoa'ko ikasgaiak jaŋi bear nituzke lendabi-
zi, bizkaitaŋentzat Bizkai'koak, napaŋentzat Napa-
ŋo'koak eta abaŋ. Iraŋpena egiteko eragozpen
aundiā zitzaion ordea au egileari, eta lan ori ira-
kaslearen eskuetan uzten du.



Sei zati ditu berez Euskaleñiak, Gipuzkoa, Araba, Lapurdi, Zuberoa ta Napafoa. Baña zazpi ditula esan leike Napafoa'ren zati bat Prantzia'ri eta bestea España'ri erantsita daudelako.



Mugak.—Ipafaldean Euskaleñiak, Bizkai-itsasoa eta Prantzi ditu (Adur ibaia). Egoaldean, Ebro ibaia eta Aragon. Eguteraan beriz Aragon bera (Ueska ta Zaragoza) eta Etzargian edo Sartaldean Santander eta Burgos eridiak.

Itsasaldea.—Bizkai itsasoak bustitzen du Euskaleñi'ko lufa Bayona'tik asi ta Bizkaia'n Muskes'en ondoraño.

Luñ-adañak.—Luzena Matxitxako da. Beste luñ-adañ nagusienak, Iger Ondañabi'n eta Katarin Done Lekeitio'n. Matxitxako'tik Baiona'raño Bizkai itsasoa iñun ez bezela sartzen da luñan.

Izadañ onen zoko bañena Pasai'ko izaratea (puertoa) da. Beste izadañak: Abra, Bilbo'n eta Mundaka bere izeneko eñan.

Itsasaldeak arkaitzezkoak ditu Bizkai itsasoak; ala ere Miaritz'en, Donosti'n eta Zarautz'en ondañtza zabal eta txukunak baditu.

GALDERAK


Euskaleña zer da? — Zein aldetan arkitzen da? — Zeren itxura du? — Euskaleñi'ko mugak zeintzuk dira? — Euskaleñi'ko itsasaldea zein da? — Luñadañak, Izadañak eta Itsasataka nagusienak zeintzuk dira?

IDATZ JARDUNKIZUNA

Gure Eña . . . da. España'ren . . . dago. Euskaleñi'k . . . baten itxura du. Euskaleñi'ko itsasua . . . da. Matxitxako . . . bat da. Euskaleñi'ko ondartz txukunenak . . . dira. Pasata Bizkai-itsasoko . . . bat da. Zarautz . . . ondartza bat da.

XI I k a s g a i a

MENDIAK ETA ARANAK




Lur azala.—Euskalefi'ko lur gaña edo lur azala bi eratak da. Guztiz zimufa edo zakafa, goialdean, mañoz ta tontoñez betea, tarteka aran estuakin; Ebro'ko aldamenetan eta Gazteiz'en befiz zelaia da.

Mendiak.—Enbor okef baten itxura du Euskalefi'ko maño nagusienak. Enbor au euskaldunen-tzat Iru-efegen Maia'tik asten da, Napafo, Zubero ta Aragoi'ko mugan, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba'ko mugetaraño luzatu ondoren sortalderuntz dijoa. Maño onen mendi aundienak, Na-pafoa'n Iru-efegen Maia (2.500 metro) Ori (2.060 metro) Ezkaufe (2.055) ta Ortanzurieta (1570) dira. Azkeneko bi aben artean arkitzen dira Euskalefi'ko basorik aundienak, urjauste ta iturburu ugariz aberastutako basoak; Abodi ta Irati

Gipuzkoa'n, Aitzgori (1.531 metro), Bizkaia'n, Anboto (1.361), Araba'n, Gorbea (1.538) goian.

Maño nagusi onetzaz gañera adar itxura duten beste mendi asko arkitzen dira.

Napafoa'n iparsortaldetik sartalderuntz topatzen ditugu Abodi'ko Basoak Mandoegi ta Ekaitra.



Gipuzkoa'n, Oñati'ko aran ertzean, Aloña; erdian Ernio ta Izañaitz. Bizkaia'n, Oiz ta Ganeko-gorta. Araba'n, Andi'ko Mendaitza, Gorbea ta Kodes.

Euskalefi'ko zelaia.—Euskalefi'ko zelai zabalenak Ebro inguruan arkitzen dira; Ipañaldean ere Bidasoa'z eta Añemendi, aruntz Eñobi'ko eta Adur'eko aranak. Erdian beñiz Gazteiz'ko zelaia.

Bizkaia'k eta Gipuzkoa'k araretan ezer asko ez dute.

GALDERAK

Euskalefi'ko luñ azala zimufa ala zelaia da? — Ebro'ko ibar inguruak nolakoak dira? — Zeñen itxura du Euskalefi'ko maño nagusienak? — Mendi goratuenak zein dira? — Napafoa'ko basoak zeintzuk dira? — Euskalefi'n bai al da aran zabalik? — Nun dira zabalenak?

IDATZ JARDUNKIZUNA


Euskalefi'ko luñ azal geiena . . . da. Ebro ibaiaren aldameneko luñak . . . dira. Napafoa'n dau-de mendi . . . eta baso . . . Gipuzkoa'ko mendi goratuena . . . da. Araba'ko mendi goratuena . . . da. Euskalefi'ko baso aundiena . . . da. Aran zabalena . . . arana da. Bidaso'z aruntz . . . dira zabalenak.



Euskalefi'ko ur guztiak bi itsasotara dijoazte, Bizkai'ko itsasora ta Ebro'ren bidez Luñarteko itsasora.

Bizkai itsasorakoak.— Bizkai'ko itsasorakoak dira ibai motzenak eta bizienak, baretzeko astirik artzen ez dutelako. Luñarterakoak befiz luzegoak, zabalagoak eta baregoak dira.

Bizkai itsasorako ibai nagusienak dira: Prantzi ta Euskalefi'ko mugan Adur, Lapurdi'n Eñobi, Gipuzkoa'n Oria, Bizkaia'n Ibaizabal ta Araban Nerbion.



Efobi-Ibaia.—Efobi-ibaia Napafo'ko Esterenzubiko mendi oñetan sortzen da; iru efeka sendo bidean artu ondoren, Ustaritz'eko aran atsegiñean sartzen da, Baiona'ra joateko eta Adur'en bidez itsasoan iltzeko.

Oria-Ibaia.—Gipuzkoa'ko egoaldean, Adrian Donea'ren atepean, iturburu bat du; Argauntza ibai irazkoia Beasain'en artzen du; Tolosa'n Araxes, Andoain'en Leizaran eta bi mendi tartetik Orio'n itsasoratzen da. Urjaustez Gipuzkoa'ko ibairik aberatsena da.

Ibaizabal (1).—Bizkai'ko bi ibai nagusienak, Ibaizabal eta Nerbion, Ariz'en alkartzen dira. Ibaizabal, Anboto mendian jaio ta Elofio ta Durango'ko zelaictara jaisten da ta Lemona'n Añati'ko ibai irazkofa artzen du. Ariz'en beñiz Nerbion, Orduña'n sortu dana, eta danak alkaturik, Bilbo'tik bafena Portugalete'ra dijoazte, Bizkai'ko itsasoan iltzeko.

Lufarterako Ibaiak—Ebro.—Euskalefi ta Gaztela'ren mugan. Santander'en sortu ta Napafo'n sartzerako zabala da. Neguan asko azitzen da ta Napafo'ko ur geienak bilduaz eta zelaiak ongafituaz Kortés'en Euskalefi uzten du.

Aragon-Ibaia.—Ueska'ko efidian sortu ta Leire ta Xabier'ko mendaitz tartetik Napafo'n sartzen da. Ebro'ren ibai irazkoí aundiena da. Lufeko emaitzetan urzintzur aberatsena.

Arga-Ibaia.—Aragon'en ibai irazkoia izan afen Napafo'n bera bezin luzea da. Belate'ko atepean jaio ta Iruña'ra jeisten da; emen lenbizi sartalderuntz jotzen du ta gero egoaldera joaten da, Aragon ibaiarekin Funes'en alkartzera.

Ega-Ibaia.—Araba'ko iturietan sortu ta Kodes'ko mendaitzpetik Napafo'n sartzen da, Lizafa bustitzen du eta Lerin'go zelaiditik Ebro'ra dijoa.

(1) Askok Bilbo'n sartzen dan ibaiari Nerbion deitzen diote, baño bere izena, Bilbo'n ere, Ibaizabal da.

GALDERAK

¿Zein itsasotara dijoazte Euskalefi'ko ibaiak? — Bizkai-itsasorako ibaiak zeintzuk dira? — Efobi ibaia nun sortu ta iltzen da? — Eta Oria ibaia? — Eta Ibaizabal? — Lufarterako ibaiak zeintzuk dira? — Aragon ibaia nun sortzen da? — Eta Ega ibaia?

IDATZ JARDUNKIZUNA

Euskalefi'ko ibaiak . . . itsasora dijoazte. Ibai luzeenak . . . dijoazte. Bizkai itsasoan iltzen diran ibaiak . . . dira. Efobi ibaia . . . sortzen da. Eta . . . iltzen da. Oria ibaia . . . itsasoan sartzen da. Ebro'ren bidez Aragon ibaia . . . itsasora dijoa. Iruña . . . ibaiak bustitzen du.



NEKAZARITZA

Ikusgaien Begiztaldia.—Nun biltzen da gari geiena? — Napaño'ko luf emaitzak zeintzuk dira? — Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n artorik bai al da? — Sagaña eta arbia nun biltzen dira? — Lursagaña edo patata nun? — Gaime-lufak edo oliokaiak nun dira? — Artoa goialdean ala bealdean ikusten dezu? — Zein da alde epelena?

Euskaleñi'ko lufak bi motakoak dira. Meak eta aldatzetan mendi aldean; zelai eta aranetan lodigoak dira.

Mendi aldean egutaro busti ta epela da. Ebro'ko aranetan befiz, udaran legoñ eta beroa, neguan txit otza.

Mendi aldean batez ere artoa, arbia, babafuna ta sagaña biltzen dira. Baso trinkoak nun nai

ikusten ditugu eta ur-
jauste biziak ere bai.

Auñe'tik beragoko
aranetan gari, olo, luf-
sagar, oliokai, eta ma-
tsa ugari biltzen da.

Arto, sagar, gari ta
matsa dira ba Euskale-
fi'ko luf-emaizt ugarie-
nak. Onela; Bizkaia'n,
Gipuzkoa'n eta Lapur-
din, sagara ta artoa.
Napafoa'n ta Araba'n, garia, lufsagara ta matsa.



BIZKAIA'KO BASERIA



ARTA SORIA

Abelgori edo azienda.—Azienda
onena Gipuzkoa'k, Bizkaia'k eta Lapur-
di'k dute. Aberexez edo artaldez Napa-
fo'ko mendiak dira aberatsenak, baita
zaldiz ta beoiez ere.

Basoak.—Baso aundienak Irati'ko-
ak dira Euskalefi'an, Napafo'ko iparean
daude. Sartaldean beiz Urbasa'ko ba-
soak; piñua ta ábar joasotzen dira.

GALDERAK

*Zenbat motako lufak dira Euskalefi'an? — Nola-
ko egutaroa du? — Zer ematen dute Euskalefi'ko lufak? —
Zeintzuk dira lur-emaizt ugarienak? — Araba'n eta Napa-
foa'n zer biltzen da? — Baso beteenak nun ditu? — Nola-
ko egura jasotzen da?*

IDATZ JARDUNKIZUNA

*Euskalefi'ko lufak....motakoak dira. Mendi aldean egutaroa....da. Eta Ebro'ko aranetan
....., eta mendialdean, artoa....biltzen dira. Euskalefi'ko luf emaizt ugarienak....dira. Baso
beteenak....ditugu. Azienda ta artaldeak....dira.*



AIA'KO ARKAITZAK

XIV Ikasgaia

LANGINTZA TA SALEROSKETA



Ikusgaien Begiztaldia.—Bilbao'ko Olaetan zer egiten da? — Gasteiz'en beriz zer? — Ardoa nun egiten da? — Itsasaldean zer ikusten dezu? — Txapel ola aundienak nun dira? — Abarketak nun? — Lapurdi'n eta Be-Nafarroa'n zer ola dira?

IKASGAIA

Lurpean Euskaleria'k ditun ondasunak burni meak eta afobiak dira batez ere.


Burni-me ugarienak Bizkaia'n ditugu. Bizkaia'k erbestera asko saldu izan oi du: Gipuzkoa'n, Araba'n eta Nafarroa'n ere burni-me batzuek ba dira, baina ez Bizkaia'n aña.

Atxurdiñezko afobi geienak eta onenak Gipuzkoa'k ditu. Artxipi'ko atxurdiña onenetakoa da. Itxasondo'k arbelezkoak ditu. Araba'k Atauri'n Aspaltozkoak eta Napafoa'k Bakaikoa'n. Gatzza Araba'ko Añana'n geiena biltzen da eta zerbait Gipuzkoa'ko Gatzagan.

Olak.—Europa'ko latefietan bezin gora ditugu Euskalefia'n olak. Langintza geienak eta indartsuenak ipaľaldean dira; egoaldean nekasaritzari geiago jafaitzen zaio. Burni paper eta eun olak dira nagusienak.

—Burni olak; Bilbao'n, Ibaizabal'en ezker-eskubitan eta Gipuzko'an, Aľasate'n (Mondragón), Eibar'en, Beasain'en, ta Bergara'n.

—Zur-olak Napafoa'ko Agoiz'en eta Olazaguti'n.



AEZKOA'KO EULEAK

Eun-olak Bergara'n Tolosa'n Eľenteria'n eta Balmaseda'n.

Paper olak, Oroz-Betelu'n, Biľaba'n, Tolosa'n, Eľenteria'n eta Ernani'n. Beste gai askotako olak ere ba ditu Euskalefia'k. Urjaustetan ugaritzuena Gipuzkoa da, baňa Napafoa'ko urjaustek indartsu-
goak dira.



ISABA - EŁONKARI'KO GAZTAIA
EGITEN

asko aldu? — Burni ol aundienak nun dira? — Eguľ geiena nun biltzen da? — Napafoak ala Gipuzkoa'k du ola geiago? — Ur-ontziak nun egiten dira? — Eta gatzza nun biltzen da? — Eun eta paper olak nun ditugu?

GALDERAK


¿Zer ondasun ditu Euskalefia'k lurpean?—Bizkaia'n zer motako meak dira? — Euskalefia'k ola

IDATZ JARDUNKIZUNA

Bizkaia'n ditugu...meak. Bilbao'n egiten dira...ontziak, eta Eibar'e'n...olak daude. Azkoiti'n...egiten dira, Tolosa'n...egiten dira. Gazteiz'en luľa lantzeko...egiten dira. Agoiz'en basoetatik...azko ateratzen da. Muskaria'n edo Tudela'n...olak ikusten dira. Irati'ko urjaustek...dira

XV Ikasgaia

BIDEAK



BIDE-ZABAL NAGUSIAK

IKASGAIA

Alde batetik bestera aldatzeko bideak
beñak dira; eta Euskaleñi'ko luña zimurñ
izan afen bide on asko du.

Bideak mota askotakoak dira: Burni-
bide, bide-zabal, ibai eta itsas-bide, eta
orain baita egazki-bideak ere.



ORMAIZTEGI'KO ZUBIA



UROLA'KO BURNI-BIDEA

Donosti'tik Iruña'rakoa.

Gazteiz'tik Lizaña'rakoa.

Gazteiz'tik Maltzaga'rakoa.

Bilbao'tik Santander'erakoa.

Bilbao'tik Getxo'rakoa, Portugalete'ra eta abaf.

Beste burnibide txikigoak badira, bai bide zabalekoak, bai bide estukoak. Urola'ko burni-bidea, edefenetako bat, tximist indafez dabil.

Burni-bideak.—Miranda'tik Baiona'rakoa.

Miranda'tik Bilbao'rakoa.


Altsasu'tik Barzelona'rakoa.

Donosti'tik Bilbao'rakoa.

Baiona'tik Burdeos'a, Baiona'tik Donibane Garazi'ra.

Abek dira nagusienak eta zer ibili geiago izaten dutenak.

Beste bide batsuek:



ERONKARI - «ALMADIAK»

Bide zabalak.—Euskalefi'ko bide zabalak txukunak dira, mendirik mendi dijoazenean bezin

txukunak, zelaidietan ta aranetan luzatzen diranean, baña laster ibiltzeko onak ez dira.

Itsas bideak.—

Itsasate batetik bes tera urontzietan ere aldatzen dira gizonak. Bilbao'tik eta Pasaia'tik urontzi aundiak ateratzendira amerika'tara, Ingalaterra'ra eta beste efi askotara joateko.



ZARAUZ'KO BIDE ZABAL BAT



Almadiak. — Napafoako Ezka, Salazar, Irati ta beste ibai batzuen bidez, efi batetik bestera, «almadia» deitzen zaien enbof zergak aldatzen dituzte. Ebro ibaiez Zaragozara, raño ta Lufarteko'ko itsasoraño joaten dira.

Oraindaño egazki (aideplano) gutxi dabil gure efiar. Udarar Miafiz'tik, astean bitan Madrid'ara aldatzen da aideplano bat.

Ufutizkiña. — Alkafen befiak jakiteko asmakizun befi bat ufutizkiña da. España'n eta Euskalefiar danen aüfetik Gipuzkoa'k jafi zun ufutizkiña. Gipuzkoa'n ez da efiarik ez auzorik ufutizkiñik ez duanik. Gañerako zatietan, Bizkaian bates ere, ufutizkiña asko zabaldu da.

IRAKURGAYA

Aitzgoñi,ko bizkañetik ikusten dana....;bideak, alde askotan, indafaren indafez gizonak uri batetik bestera egin dituan bideak, or gorde ta emen agertu, an oker ta arutzago zuzen, beti estu estu, danean zuri zuri, norbait ariñetik erori zaion ari albañu luze baten taiuan; ta azkenez, gizona-

ren jakituri ta alizatearen erakutsirik andienetakoa, suburdi beltza bere burni lefotik bařuna lais-terka txistuka ta zapafarean ařotasunaren agerpena bezela ke matasa lodi zikin bat kopeta gařean ařo ařo daramala.

«Garoa'tik artua»

GALDEBAK

Zerterako dira bideak? — Zenbat eratakoak dira? — Burni-bide nagusienak zeintzuk dira? Bide zabal asko alditu Euskaleřia'k — Eřidi guztien artean zeinda auferatuena uřutizkiřetan? — Zer dira «almadiak»?




IDATZ JARDUNKIZUNA

Bideak . . . motakoak dira. Burni-bideak . . . ditugu Euskaleřia'n. Donostitik . . . burnibidea. Mirandatik . . . burnibidea. Gipuzkoa'k bidezabal . . . ditu. Bilbao'tik itsaso . . . aldatzen dira urontziak. Napařoa'n . . . deitzen zaien enbořen zergak ibaiez eramaten dituzte. Udaran aide-planua . . . tik Madrid'ara joaten da. Uřutizkiřa . . . eři danetan da.

XVI Ikasgaia

EUSKALERIA (1)



Ikusgalen Begiztaldia.—Zenbat aldetan bustitzen du itsasoak Euskaleria?—Zein dira efi buruak?—Zein da ihai luzena?—Nafarroa'ko mendikaterik sendoena nun dago?—Zein da Euskaleria'ko zatirik aundiena?—Itsasaldean ze erki arkitzen dituzu?—Ibaiak zenbat aldetara jotzen dute?

IKASGAIA

Gure sortefia Euskaleria da. Europa'ko efi zaínenetako eta auferatuenetako bat da. Euzkaleriko semeei euskaldunak deritzaie.

Erligioa ta isakera.—Euskaldunak Katoliko sutuak eta lege zafen zaleak dira. Lanean

(1) Euskadi ere asko erabiltzen da orain, Euskal-erian batza adierazteko.

iraunkofak, eta oitura garbikoak. Euskaldun'en izkuntza euskera da.

Bizilagunak. — Euskalefia'k edo Euskadi'k 1.324.375 bizilagun ditu. Azkeneko urteetan bertako seme askok erbestera alde egin dute eta afortz asko sartu zaigu etxean; euskerak ez du ezer asko irabazi onekin.

—Euskalefia'k berez sei zati ditu: Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa. Lau zati lenengoak Añamendi egoaldean daude ta beste biak eta Nafarroa'ren zati bat, Añamendi'ren iparaldean. Bizkaia, Gipuzkoa ta Lapurdi iz-efkiak dira.

Añamendi'ko malotan eta inguruan basefi edo basetxe asko da, efiak befiz ibai ertzetan arkitzen dira. Añatik egoaldean basetxe gutxi da, bizilagunak efietan bilquta bizi dira.


—Erki bakoitza auzi-bafuti eta lege-bafutietan zatitzen da, eta auzi-bafuti eta lege-bafuti bakoitzak efi asko ditu.

BIZKAIA


Euskalefi'ko erki sartaldenekoa Bizkaia da. 2.197 km.² eta 450.000 bizilagun ditu.

Bizkaia sei auzi-bafutitan zatitzen da: Durango, Gernika, Balmaseda, ta Bilbao'ko iru auzi-bafutiak.

Bizkaia'ko efi burua Bilbao da, Euskalefi'ko efi aundiena



GERNIKA-ARITZ DONEPEAN



OÑATI - IKASTOLA

eta aberatsena. 150.000 bizilagun ditu. Ibaizabal'en ezkef eskubitan dago. Salerosian lenbiziko uria.

—*Beste efi nagusienak*: Barakaldo eta Sestao; biak burnizko langintzan jarduten dute.

Durango.—6.000 bizilagun. Donosti'rako burnibidean dago. Langintzan eta nekazaritzan jarduten du.

Gernika.—Bere izeneko aranean dago. 4.577 bizilagun. Euskaldun guztientzat bere Zugaitz Donea maitagafi da.

Balmaseda.—Kadagua ibaiaren ezkefetan. Txapel olak eta txakolin ona.

GIPUZKOA


Gipuzkoa, Bizkaia ta Lapurdi'ren tartean dago. 1.884 km.² ta 300.000 bizilagun ditu. Erki menditsuena, baña bidetan auferatuena.

Gipuzkoa'k lau auzi-bafuti ditu: Donosti, Azpeiti, Bergara ta Tolosa



DONOSTI'KO URIA

(*Urantzu*) *Irun*.—15.253 bizilagun. Mugaide uria. Gipuzkoa'ko zelai zabalenean.



OTXAGABI'KO NESKATXAK

Efi-burua.—Gipuzkoa'ko efi burua Donosti da. Itsasuri txukun eta garbia, eleiz eta etxe edefez apaindua. 75.000 bizilagun.

Beste efi nagusienak: (*Urantzu*) *Irun*, *Eibar*, *Tolosa* ta *Bergara*.

Tolosa.—10.920 bizilagun. Paper, txapel, soka, eta irarkoletan aberatsa.

Azpetti.—8.073 bizilagun. Loyola'ko Iñaki Donearen sortefia. Izafaitz'en oñentan.

Bergara.—9.292 bizilagun. Eunezko, burnizko ta oñetako olak. Elizan Kristo gurutz-iltzatuaren irudi ikusgafi bat du.

Eibar.—12.920. bizilagun. Olategietan guztiz aberatsa, txifingutsak, izkiluak eta pitxi politak egiten ditu.

Zarautz.—5.000 bizilagun. Udaldia igarotzen ozte aundia izaten dan uri polit eta liraña. Ondartza zabal ta edefa du. Efedi edo mueblegintza eñirik auferatue-netakoa. Ola asko ta aundiak ba-ditu langintza ontan.

ARABA

Bizkaia ta Gipuzkoa'ren egoan. 3.044 km.² eta 100.000 bizilagun gutxi gora bera. Nekazaritzatik bizi dan erkia da.

Araba'k iru auzi-bafuti ditu: Gazteiz, Amuñio ta Biaizteri (Laguardia).

Eñi-burua.—Araba'ko eñi burua Gazteiz da. 30.000 bizilagun. Bi zatitan dago: Gazteiz zafa tontor baten gañean eta Gazteiz beñia zelaian. Gotzai (Obispo) jaunaren egon-tokia da.

Beste eñi nagusienak: Biaizteri (Laguardia)—Eñi zafa, edertiz apaindua. Ardo ona egiten du.

Agurain (Salvatierra).—Nekazarien eñia; lur-sagar eta urarbi asko biltzen du. Bi eliz-nagusi apañak ditu.

Amuñio.—Miranda'tik Bilbao'rako burni-bidean. Azienda onetako eñia, auzo askotan zatitua dago.



IDI - JOLASBILA



BIANA'KO ELIZ-ATARIA

NAPAÑO

Euskaleñi'ko zatirik aundiena eta nekazaritzan eta edertietan aberatsena.

Napañoa'k 10.506 km.² eta 339.000 bizilagun ditu.

Efi-burua.—Napafoa'ko efi burua Iruña da, Añamendi'ko adar baten muñaren gañean. Antziñan Napafoa'ko efegeen bizi-tokin. Azkeneko urtetan asko azi ta befitu da.

Napafoa'k bost auzi-bafuti ditu: Iruña, Lizafa, Aoiz, Tapala ta Muskaria (Tudela).

Beste efi nagusienak: Muskaria (Tudela). Ebro ibaian eskubitan, lufemaitzetan oso aberatsa; azukare ta irin olak ditu. 10.000 bizilagun.

Lizafa (Estella).—10.000 bizilagun. Eliz eta antziñako etxe edezez apaindu-tako efi. Buñuketan asko ikusia.

Tapala.—Zidakos'en ibai ertzean. Barazki eta igalietan ugaritsua. Andra Mari'ren eliz edefa du. 6.500 bizilagun.

Korela.—7.000 bizilagun. Napafoa'ko egoaldean, edertitan aberatsa. Baratzuri, igali, gari ta ardo onak ditu.


LAPURDI

Añamendi'ko mendikatea'ren ipa-fean. Itsasaldeko erkia da. 777 km.² ditu ta 111.516 bizilagun.

Lapurdi'k lau lege-bafuti ditu: Donibane Loitzun, Uztaritz, Ezpeleta ta Baiona.

Efi-burua.—Lapurdi'ko efi burua Baiona da. Izuria. Saleroste aundia du. 30.000 bizilagun.

Miafitz.—Bizkaia itsasoko izpasteñan; udaran bizilagun asko izaten ditu bustialdiak artzen.



ARAUNLARIAK DONOSTI'N



AMAMA

Donibane Loitzun.—Izuria. Añantzale bulartsuen efi.

Uztaritz.—Efobi ibaiaren ezkefetan Zelai atsegiñean. Apeztegi befi du.

BE - NAPAŖOA

Be-napafoa antziñako Napafoa'ko bakaldefiaren zati bat da, Lapurdi ta Zuberoa'ren tartean. 1.500 km.² eta 41.000 bizilagun ditu.

Be-napafoa'k iru lege-bafuti ditu. Iholdi, Donibane Garazi ta Baigofi.

Efi-burua.—Donibane Garazi, Afadoi mendiaren oñetan; antziñako bufuketan gogor zigortutako efi.

Baigofi.—Erobi ibaiaren ezkeretan. Opitazko meak eta tximist olak ditu.

Donapalen.—Urjausteak eta txokolate olak.

ZUBEROA

Be-napafoa'ren eskubitara. Uraitza ibaiak bustia. 817 km.² eta 25.380 bizilagun.

Lege-Bafutiak.—Maule ta Atafatz dira Zuberoa'ko lege-bafutiak.

Efi-Burua.—Maule 4.827 bizilagun; Uraitza (Saison) ibaiaren ezker eskubitan. Ezpartiña (abarketa) ta abarka olak ditu.

Atafatz (Tardes).—1.191 bizilagun; Maule'ko egoaldean. Eretzu mendiaren oñetan. Baso ikusgafiak ditu.

Engrazi-Done.—Otetzarako mendi zuloan ezkutatua. Euskalefi'ko efi sartaldenekoa da. Antziñako eliz edefa du.



ERONKARI - ATSO-AGUREAK

GALDERAK


Zer da Euskalefia edo Euskadi? — Euskalefi'ko bizilagunei nola deitzen zaie? — Zer erlijio ta izakera dute euskaldunak? — Zenbat zati ditu Euskadi'k? — Bizkaia zer da? — Zenbat auzi-bafuti ditu? — Zein da Bizkaia'ko efi burua — Zein dira Bizkaia'ko efi nagusienak?

Gipuzkoa.—Gipuzkoa'ko luia nolakoa da? — Zenbat auzi-bafuti ditu? — Zein dira Gipuzkoa'ko efi nagusienak? — Zein efi burua?

Araba.—Araba nun arkitzen da? — Zein dira bere auzi-bafutiak — Zenbat bizilagun ditu? — Zein da Araba'ko efi burua? — Eta efi nagusienak?

Napafoa.—Napafoa zer da? — Zenbat bizilagun ditu? — Napafoa'ko efi burua zein da? — Zein dira Napafoa'ko auzi-bafutiak? — Efi nagusienak?

Lapurdi nun dago? — Zenbat lege-bafutitan zatitzen da? — Lapurdi, Be-napafoa ta Zuberoa'ko efi buruak zeintzuk dira?



IRUGAÑEN ZATIA

ESPAÑA.

LUDIKO BESTE EÑIAK

XVII Ikasgaia

ESPAÑA



Ikusgaien Begiztaldia.—Espania'ko ipafaldeko itsasoan zenbat izuri ikusten dituzu?—Espania'n ikusten dituzun ibaiak zenbatu.—Zein da mendi-maño luzena?—Lur-adarik luzena zein da?—Erdiko uria zein da?

IKASGAIA

Espania'k Portugal'ekin lufalde bat egiten du, eta onen egosartaldean dago.

Napafoa, Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa orain Espania'ko erkidiak dira.

Egutaro eta Lufemaitzak.—Iru eratako egutaroa du Espania'k. Ipafaldean bustia ta epela, eta